

“Plan Ready” promozioaren lege oinarriak

PROMOZIOAREN BALDINTZAK

BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A. merkataritzako erakundeak, zeinak egoitza soziala Bilbon baitu, San Nikolas plazako 4. zenbakian, eta A48265169 zenbakiko IFK baitu (aurrerantzean "BBVA"), promozio hau antolatu du, "Plan Ready" deiturikoa (aurrerantzean "Promozioa"), zeina lege oinarri hauek zuzenduko baitute (aurrerantzean, "Lege oinarriak").

1. Zertan datza Promozioa?

Promozio honen helburua da bezeroek online alta emateagatik eta BBVA'n www.bbva.es edo m.bbva.es webgunearen bidez edo mugikorretarako BBVAren aplikazioaren bidez (Android eta iOS sistema eragileak) alta emanak diren bezeroek Aqua zordunketa/kreditu txartelarekin (aurrerantzean, "Txartela") egindako 15,00 €-ko edo gehiagoko lehen erosketa hobaritzea.

Txartelarekin aipatu erosketa hori egiteagatik, 15,00 € garbiren hobaria lortuko duzu zure kontuan.

2. Nori dago zuzenduta Promozioa?

Promozioa hastean, 18 urte baino gehiago dituzten pertsona fisikoak dira promozioaren xede, baldin eta Espainiako lurraldean bizi badira eta 1. klausulan adierazitako bideetatik BBVA'n

3. Nork ezin du hartu parte Promozioan?

Ezingo duzu promozio honetan parte hartu horren indarraldian eta hobaria eman arte BBVA'rekin iraututa eta galdagarria den zor bat baduzu. Kasu horretan, hobaria jaso aurretik erregularizatu beharko duzu egoera. Hobaria sartzeko eguna iritsita oraindik ez baduzu erregularizatu zorra, hobaria jasotzeko eskubidea galduko duzu, eta ez zaizu sartuko kontuan.

4. Zenbat irauten du Promozioak?

Sustapenean parte hartzeko epea 2022ko abenduaren 11n hasiko da, 00:00etan (Espainiako penintsulako ordua), eta 2023ko ekainaren 30ean amaituko da, 23:59ean (Espainiako penintsulako ordua), bi egun horiek barne (aurrerantzean, "indarraldia").

5. Zer urratsi jarraitu behar diezu promozioan parte hartzeko?

Promozioan parte hartzeko, urrats hauek burutu behar dituzu

- BBVAren bezero ez izatea;
- Promozioa hasi eta aurreko sei (6) hilabeteetan BBVAko bezero gisa baja hartu ez izatea;
- Lege oinarriak onartzea eta jarduera hauek egitea:
- bbva.es edo m.bbva.es webgunean edo app-aren bidez online alta hartzea, BBVAko Online kontua (aurrerantzean, "BBVA Online kontua") eta Aqua zordunketa/kreditu txartela(aurrerantzean, "Txartela") kontratatuta; eta

- zure txartela aktibatzea.
- Zure Txartelarekin erosketa bat egitea, 15,00 €-koa edo gehiagokoa, BBVA bezero gisa alta hartu eta gehienez 3 hilabeteko epean.

Hogeita hamar (30) egun naturaleko gehieneko epe bat izango duzu, BBVA Online kontuaren kontratua sinatzen denetik hasita, BBVA Online kontua kontratatzeke eta hari alta emateko eta, ondorioz, hura indarrean jartzeko BBVA eskatutako informazioa eta dokumentazioa bidaltzeko. Epe hori igarotakoan BBVAko Online kontua martxan ez badago, eskatutako informazioa eta dokumentazioa bidali ez delako eta ezin izan zaiolako alta eman, Promozioa bertan behera geratuko da.

6. Zein da hobaria, eta noiz jasoko duzu?

Txartelarekin 15,00 €-ko edo gehiagoko zenbatekoa duen erosketa bat egiten baduzu, 5. atalean adierazitako urratsak jarraituz 15,00 €-ko hobari garbia jasoko duzu ordainketa prozesuan txartelarekin batera kontratatu izan duzun zeure BBVA online kontuan.

Hobaria Lege-oinarri hauetan aurreikusitako baldintzak betetzearen mende egongo da.

BBVAk lege oinarrietan ezarritako baldintzak egiaztatu ondoren sartuko du hobaria, Txartelarekin 15,00 €-ko edo gehiagoko lehenengo erosketa egin eta gehienez sei (6) hilabeteko epean.

Hobaria ezin izango da aldatu edo konpentsatu. Hobariari uko egiten badiozu, ez zaizu horren ordezkorik eskainiko.

Parte hartzailearik ez badago, BBVAk eman gabe utzi ahal izango du Promozioa.

7. Nola jakinarazten da Saria?

Txartelarekin 15,00 € garbiko edo gehiagoko erosketa egin eta gehienez sei (6) hilabetera emango da hobariaren berri.

Titular gisa hobariduna duen BBVAko Online kontuan sartuko da hobaria; "Promozio komertzialeko hobaria" adieraziko da gaian, eta, oharretan, berriz, hau: "Plan Ready promozioko hobaria".

8. Zer dakar Lege-oinarriak onartzeak?

Lege-oinarri hauek onartuta, haiekin ados zaudela adierazten da, eta ontzat ematen da BBVAren irizpidea haiek interpretatzean egon daitekeen edozein gatazka ebazteko. Parte-hartzaile gisa, BBVAk ematen dituen argibideei jarraitu behar diezu.

BBVAk eskubidea du zu deskalifikatzeko, hark hala nahi izanez gero, Promozioa manipulatzeko baduzu, hura manipulatzeko saiatzeko bazara edo Lege-oinarri hauetako zehaztapenak eta baldintzak urratzen badituzu.

BBVAk behar dituen erabakiak hartu ahal izango ditu Promozioak dirauen bitartean sortzen diren gatazkak eta eztabaidak ebazteko, baldin eta erabaki horiek bidegabe kaltetzen ez bazaituzte eta bidezkoak badira.

Aurretik aplikagarriak ziren parte hartzeko baldintzak betetzen ez badituzu edo lege oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen ez badituzu, ez duzu eskubiderik izango hobaria jasotzeko oinarrietan ezarritako baldintzetan.

9. Zer gertatzen da Promozioaren baldintzak bete ezean?

Lege oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez baduzu (tartean hobaria haietan ezarri bezala entregatu ondoren indarrean dauden baldintzak), Promozioa bertan behera geratuko da, eta, ordurako hobaria kontuan izango bazenu, itzuli egin beharko duzu. BBVAk jakinaraziko dizu deskalifikatua izan zarela, eta, jakinarazpenean adierazitako epearen barruan, entregatutako hobariaren zenbatekoko zordunketa bat egingo dizu (15,00 € garbi) hobaria sartu zitzaizun kontu berean.

Baldintzak ez betetzeagatik jakinarazpena posta elektronikoki bidaliko zaizu, BBVA alta hartu zenuenean adierazi zenuen helbide elektronikora, hurrengo sei (6) hilabeteren barruan, baldintza horietako batzuk betetzen ez direnetik hasita.

Promozioaren Lege oinarriak betetzen ez badituzu, automatikoki geldituko da bertan behera, nahiz eta geroago bete.

10. Zer gertatzen da iruzur egin baduzu edo inork iruzur egiten badu?

BBVAk edo profesionalki Promozioa lotuta dagoen edozein erakundek arazoren bat detektatzen badu edo susmatzen badu horren

ohiko garapena galarazten ari zarela, alde bakarrez Promoziotik kanporatu ahalko zaitu. Ondorio horietarako, BBVAk beharrezko euskarri teknologikoak prestatu ditu, hobaria legez kanpo lortzeko parte hartzea aldatu nahi duen iruzurrezko, ohiz kanpoko edo doluzko jokaerarik bada hauteman dadin. Hortaz, BBVAk beretzat gordetzen du zu erregistrotik ezabatzeko eskubidea, erakutsi badu edo susmatzen bada deskribatutakoaren arabera araz kanpoko jokaera bat duzula.

11. Zein da erreklamazio aldia?

Promozioaren erreklamazio aldia Indarraldia amaitu eta hamabi (12) hilabete igarotakoan amaituko da.

12. Nola tratatuko dira zure datu pertsonalak?

Parte-hartzaileari jakinarazten zaio Sustapen honetan parte hartzean emandako datu pertsonalak, hobariaren onuradun gisa emandakoak barne, Banco Bilbao Vizcaya Argentaria S.A. (egoitza soziala: San Nikolas plaza 4, 48005, Bilbo) tratatuko dituela, Sustapenaren antolaketa, kontrola eta jarraipena burutu eta oinarri hauetan aurreikusitakoaren arabera Saria ematea kudeatzeko helburuarekin.

Zure datu pertsonalak datu pertsonalen babesari eta informazioaren gizarteko zerbitzuei buruzko araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera tratatzen dira, eta behar diren neurri teknikoak, antolamenduzkoak eta segurtasunekoak gordetzen dira haien konfidentzialtasuna bermatzeko eta haiek aldatzea, galtzea eta baimenik gabe tratatzea edo eskuratzea saihesteko.

BBVAk hauxe jakinarazten dio "Titularra":

- Datu pertsonalak kontratu-harremanaren indarraldia bitartean gordeko dira. Behin hori amaitzen denan, lokeatuta geratuko dira legezko preskripzioek agintzen duten epean, oro har hamar urtez. Legezko preskripzio-epeak igarotzen direnean, datuak suntsitu egingo dira.
- Zure datu pertsonalak ez dira hirugarrenei jakinaraziko, lege batek behartu edo horretarako onarpena jaso ezean.
- Datu pertsonalak tratatzea ahalbidetzen digun oinarri juridikoa zuk ematen diguzun baimena da oinarri hauek onartzean Sustapen honetan parte hartzeko.
- Parte-hartzaileek doan erabili ahal izango dituzte datuetan sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta eramangarritasunerako eskubideak, idazki bat igorri derechosprotecciondatos@bbva.com helbide elektronikora. Eskubide horien gauzatzeak ez du atzeraeraginezko ondorioz izango. Promozio honen kudeaketarako behar diren datuak ezabatuz gero, baja hartuko da automatikoki Promozioan.
- Parte-hartzaileek uste badu bere datu pertsonalak ez direla araudiaren arabera tratatu, BBVA Taldearen Datu Pertsonalak Babesteko Ordezkariekin jar daiteke harremanetan, dpogrupobbva@bbva.com helbidean. Nolanahi ere, erreklamazioa jarri ahal izango duzu Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (www.agpd.es).

13. Zer zerga du hobariak?

Hobariaren zenbatekoak zerga-ondorioak izan ditzake; beraz, kontuan izan zure errenta aitopeneri begira.

14. Zein da BBVAren erantzukizuna Promozio honetan?

BBVAk ez du erantzukizunik hartuko Promozio zure parte-hartzean eragina izan dezaketen galeren, narriaduren, lapurreten, atzerapenen edo hirugarrenei edo Interneti egotz dakiekeen beste edozein inguruabarren gainean.

BBVAk beretzat gordetzen du edozein parte-hartze edo partaide bertan behera uzteko eskubidea, Promozioaren erabilera desgokiaren susmorik baldin badu.

Halaber, BBVAk baztertu egiten du edozein izaerako kalte-galeren gaineko ezin erantzukizun; izan ere, nahiz eta segurtasun neurriak hartu, parte-hartzaileek zerbitzu eta edukien erabilera okerra egin dezakete, eta horien artean bereziki, nahiz eta ez izan modu eskusiboan, baztertu egiten da erabiltzaile batek edozein komunikazio mota bidez hirugarren baten nortasun-ordezpeneri lotutako edozein kalte-galera.



15. Non kontsulta ditzakezu Lege-oinarriak?

BBVAk ahalmena du legezko oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein egoera ebazteko.

Onartu egiten duzu BBVAk geroratu, laburtu, atzeratu, aldatu, ezeztatu edo eten egin dezakeela promozioa, bere kontrolarik at dauden ezinbesteko arrazoiak direla eta, eta konprometitu egiten da zuri egoera hori jakinaraztera lehenbailehen.

Lege-oinarri hauen edozein klausula baliogabetzat jotzen bada, indarrean jarraituko dute horrek eragiten ez dien gainontzeko klausulek.

16. Legeria eta forua

Edozein eztabaidetan Espainiako legeria aplikatuko da Madrilgo epaitegi eta auzitegietan.